

Ipuhinak

JOSU GALDOS

Ilustrazioak: Up!Art

Desclée De Brouwer

AURKIBIDEA

BEHEKO ERREKA

9

OLATUA

23

KARAKOLAREN BIDAIA

35

IZARRETAKO MUTIKOA

45

BEHEKO ERREKA



1.

Amona Bixenta hil zenetik, aitona Martxelo bakar-bakarrik bizi zen bere baserri zaharrean. Bere seme-alabek eta bilobek herrira jaisteko eskatu arren, berak nahiago izan zuen bere baserri zaharrean gelditu. Berak oso gustora zegoela esaten zuen, eta herrian etzekiela bizitzen.

Martxeloren bilobetako bat Jaione zen. Jaionek asko maite zuen bere aitona, eta igandero-igandero bisitatzen zuen. Herritik baserrira hiru edo lau kilometro besterik ez zeuden, eta Jaione askotan oinez igotzen zen baserrira.

Udako igande batean, Jaione baserrira igo zen goizean goiz, bere aitonarekin egoteko gogoz. Beti egoten zen zereginen bat baserrian, baratza

Ipuhinak

dela, oiloak direla, sagarrak bildu behar direla e.a, baina igande hartan, aitona Martxelo oso nekatuta zegoen, eta egun hartan etzutela lanik egingo esan zion Jaioneri.

—Ondo al zaude? –galdetu zion Jaionek.

—Bai ttiki, baina zure aitona oso zaharra da, eta gaur ez nago lanerako. Goazen beheko errekarara patxada ederrean egotera.

Aitona Martxelori asko gustatzen zitzaion beheko erreka, eta ordu asko igarotzen zituen urari begira, batez ere txoko batean egoten zen, haltz baten azpian.

Beheko errekarara iritsi zirenean, Jaione, askotan bezala galderak egiten hasi zen.

—Aitona, nora doa errekarako ura?

—Ba itsasora.

—Baina ez al da ur asko? Begira aitona, ura etorri eta etorri egiten da, ur asko da, kabituko al da ur guzti hau itsasoan? –Jaione larritzen hasia zen.

Beheko erreka

—Lasai neska, itsasoko urak gainezka egin ez dezan, lainoak batzutan ura biltzen ibiltzen dira, eta gero lurrera eta erreketara ekartzen dute, landareak eta guk behar dugun ura izan dezagun.

—Ah! Jaione asko lasaitu zen.

Haltzaren txokoan eseri ziren orduan, lasai-lasai, atsedena hartzen, Jaionek etzuen inoiz bere aitona hain nekatuta ikusi.

—Aitona, oso nekatuta zaude.

—Bai neska bai, oso nekatuta nago, nire bizitzaren erreka itsasora iristen ari da.

—Zer esan nahi duzu? —Jaionek ez zituen aitonaren hitz horiek ulertu.

—Hara Jaione, gure bizitza erreka bat bezalakoa da, erreka denak, gu bezala, ezberdinak dira, baina azkenean, egun batean denok hil egingo gara, itsasora iritsiko gara.

—Ez aitona, zu etzara hilko! —Jaioneri ez zitzaion aitonak esandakoa batere gustatu.

—Bai Jaione bai, itsasoa oso hurbil daukat.

Ipuhinak

—Eta zer egingo dut nik zu gabe, aitona?

—Lasai Jaione, ni hil eta gero ere zurekin egongo naiz zuk nahi duzun guztietan. Itsasoko ura gero erre kara itzultzen den bezala, ni ere, nire itsasotik nahi dudan guztietan itzuliko naiz zurekin eta hemen utziko ditudan lagun guztiekin egoteko.

—Eta non dago ba hilen itsasoa?

—Hilen itsasoa? Ja, ja, ja, ja –aitona Martxelori grazia egiten zion Jaioneren jakinminak eta barre egiteari utzi zioenean hizketan jarraitu zuen.

—Hilen itsasoa bizien itsasoa dagoen leku berean dago ttiki, toki guztietan. Lurrean, zeruan, zuhaitzetan, izarretan...

—Ah! –Jaionek toki guztietara begiratzen zuen, baina etzuen ezer berezirik ikusten.

—Ba nik ez dut inon itsaso hori ikusten!

—Ja, ja, ja –aitona ia parrez lehertu zen –beno ttiki, gaurkoz nahikoa hitz egin dugu, goazen baserrira, dagoeneko gose izango zara eta.

Beheko erreka

Bazkaldu ostean, igandero bezala, denak etortzen hasi ziren, aitonaren seme-alaba guztiak euren famili guztiekin. Jaionek sei lehengusu zituen, eta gehienetan igotzen ziren baserrira. Oso ongi pasatzen zuten baserriko zoko guztietan jolasean. Kukutan, harrapaketan, arrainak harrapatzen e.a.

Egun hartan ere oso ongi pasa zuten, eta iluntzean aitona agurtu eta bakoitza bere etxera joan zen.

